

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

17265 *10/2020 Legea, abenduaren 29koa, Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra aldatzen duena, Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko (EB)2018/822 Zuzentarauaren transposizioa egiteko. 2018ko zuzentarau horrek 2011/16/EB Zuzentaraia aldatu zuen komunikatu beharreko mugaz gaindiko mekanismoak direla-eta fiskalitatearen eremuko informazioa automatikoki trukatzeko betebeharrari dagokionez.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko (EB) 2018/822 Zuzentaraia 2011/16/EB Zuzentaraia aldatu zuen, informazioa komunikatu beharreko mugaz gaindiko mekanismoak direla-eta fiskalitatearen eremuko informazioa automatikoki trukatzeko betebeharrari dagokionez, eta ezarri zuen plangintza fiskal erasokorra izan dezaketen mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuk komunikatzeko betebeharra dagoela. Horiek horrela, Batasuneko estatuek betebeharraren transposizioa egin behar dute.

Bi helburu nagusi ditu komunikazio-betebeharrak. Batetik, informazioa eskuratzea, ihes eta saiheste fiskalaren aurka borrokatu ahal izateko. Bestetik, disuasio-helburua, plangintza fiskal erasokorreko mekanismoak erabil ez daitezzen. Ikuspegi horretatik, argitu beharra dago mugaz gaindiko mekanismo bat aitortu behar izateak ez duela esan nahi, berez, mekanismo hori iruzurrezkoa edo saiheskorra denik; soilik esan nahi du plangintza fiskaleko zenbait ezaugarri dituela, pentsarazten dutenak mekanismoa aitortu beharrekoa dela.

Zehaztu behar da, halaber, informazioa aitortzeak eta Zerga Administrazioak erantzunik ez emateak ez duela esan nahi aitortu diren mugaz gaindiko mekanismoen legezkotasuna onartzen denik.

Transposizioa Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean taxutzen da, lege-mailako arau bidez erregulatu behar diren gaietarako, eta, transposizioa osatzeko, zenbait berritasun txertatzen dira Tributuetarako kudeatzeko eta ikuskatzeko eta tributuetarako aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jardunen eta prozeduren Erregelamendu Orokorrean, zeina uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.

II

Transposizioa legez bideratzeko, bi xedapen gehigarri txertatzen dira Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean.

Lehenaren bidez, plangintza fiskaleko mekanismo jakin batzuei buruz informatzeko betebeharraren oinarritzko gidalerroak ezartzen dira, bat etorritik aipatutako zuzentaraiekin eta informatzeko betebeharrari buruz gure zerga-zuzenbidean ezarrita dagoen araubide orokorarekin. Lehenengo xedapen gehigarri horrek aurrez aipatu den betebeharrarekin zerikusia duten bi betebeharrak independente ezartzen ditu lege-mailan, zeinak Kontseiluaren

2011/116/EB Zuzentarauan ere jasota baitaude: batetik, bitartekariak duten betebeharra mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarriari buruzko informazioa eguneratzeko, eta, bestetik, zergapeko interesdunek duten betebeharra mugaz gaindiko mekanismoak erabili izanari buruz informatzeko.

Horrez gainera, Zuzentarauaren printzipio inspiratzailei jarraikiz, eta, betiere, gure ordenamendu juridikoak aurrez ezarritako legezko mugen barruan, sekretu profesionalaren eginbeharra aitortzen zaie, adierazi diren informatzeko betebeharren ondorioetarako aitortu ere, Zuzentarauaren arabera bitartekarizat hartzen diren guztiei, baldin eta mekanismoarekin lotutako aholkularitza neutrala eskaintzen badute eta horren helburu bakarra bada ebaluatzea ea mekanismoa bat datorren aplikatu behar den araudiarekin.

Halaber, arautzen da zein kasutan salbuetsiko diren bitartekariak informatzeko betebeharraren bidez ezarritako datu-aitorpenaren erantzukizunetik.

Bestalde, txertatzen den beste xedapen gehigarriak arautzen du zer komunikazio-betebehar dituzten aitortu beharra dakarten plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoetako esku-hartzaileek eta parte-hartzaileek.

Informatzeko betebehar horien logikari jarraituz, betebeharrak betetzen ez direnean aplikatu behar den zehapen-araubidea erregulatzen da.

III

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz, lege hau printzipio hauen arabera egin da: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Premia- eta efikazia-printzipioak betetzen dira; izan ere, (EB) 2018/822 Zuzentarauaren transposizioa egiteko, ordenamenduko zenbait arau aldatu behar dira, lege- eta erregelamendu-maila dutenak.

Proportzionaltasun-printzipioa ere betetzen da, zeren eta soilik begiratu baita nola erantzungo zaien lehen aipatutako eta berariaz exijitutako helburuei.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, bermatu da testua bat datorrela Estatuko gainerako ordenamendu juridikoarekin, bai eta Europar Batasunaren ordenamendu juridikoarekin ere. Lege-araua, izan ere, Espainiako Zuzenbidera Europar Batasunaren arauaren transposizioa egiteko beharrak ekarri du.

Gardentasun-printzipioa bermatzeko, legea *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzeaz gain, haren aurreproiektua eta arau-eraginaren azterketari buruzko memoria Ogasun Ministerioaren egoitza elektronikoan argitaratu dira, herritar guztiek testu horien berri izan dezaten entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideetan.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, ahaleginak egin dira arau honek ahalik eta karga administratibo txikiak sortzeko herritarrei, eta ahalik eta zeharkako kostu gutxien eragiteko, baliabide publikoak zentzuz erabiltzea sustatuz; are gehiago, neurrietako batzuek karga horiek murriztuko dituzte.

Amaitzeko, araua «elkarren laguntza»ren eremuan kokatzen da, Tributuen Lege Orokorrean jasotako definizioaren arabera, eta nazioarteko harremanen izaera juridikoa du. Arau hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.3 eta 149.1.14 artikuluetan ezarritakoaren babesean ematen da, artikuluko horiek eskumena ematen baitiote Estatuari nazioarteko harremanen eta ogasun publikoaren gainean, hurrenez hurren.

Artikulu bakarra. *Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra aldatzea.*

Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra honela geratzen da idatzita:

Bat. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita hirugarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruz informatzeko betebeharra.*

1. Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.21 eta 3.22 artikuluen arabera betebeharraren ondorioetarako bitartekari edo zergapeko interesdun diren pertsona edo entitateek informazio hau eman beharko diote Zerga Administrazioari, lege honek 29., 29 bis eta 93. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik eta erregelamendu bidez ezartzen den moduan (2011/16/EB Zuzentzaraua, fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentzaraua indargabetzekoa):

a) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.18 artikuluan definituta dauden mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa, baldin eta bitartekariak edo zergapeko interesdunak haietan esku-hartzaile edo parte-hartzaile badira eta mekanismoek Zuzentarauaren IV. eranskinean adierazitako ezaugarri bereizgarriak badituzte.

b) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.24 artikuluan aipatuta dauden mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarriei buruzko datuak eguneratzeko informazioa.

c) Aurreko a) eta b) letretan aipatuta dauden plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoak Espainian erabili izanari buruzko informazioa.

Informatzeko betebeharraren ondorioetarako, ez dira hartuko aitortu beharra dakarten plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismotzat Europako Batzordearen erabaki baten bidez jakinarazita eta berariaz baimenduta dauden zerga-arabideetan oinarritutako akordioak, negozio juridikoak, eskemak edo mugaz gaindiko eragiketak.

2. Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter artikuluko 5. apartatuaren arabera, sekretu profesionalaren eginbeharra dela-eta informatzeko betebeharratik salbuetsita egongo da zuzentzarau horren arabera bitartekaritzat hartzen den oro, egindako jarduera alde batera utzita, baldin eta aholku eman badu Zuzentzarauan definituta dauden mugaz gaindiko mekanismoetako bat diseinatzeari, merkaturatzeari edo antolatzeari buruz, mekanismoa exekutatzeko eskuragarri jartzeari buruz edo mekanismoaren exekuzioa kudeatzeari buruz eta helburu bakarra izan bada ebaluatzea ea mekanismoa bat datorren aplikatu behar den araudiarekin, betiere mekanismoa ezar dadila erraztu edo bultzatu gabe.

Sekretu profesionala gordetzeko eginbeharra duen bitartekaria eginbeharraren horretatik aske gera daiteke, zergapeko interesdunak modu frogagarrian komunikatutako baimen baten bidez.

3. Bitartekariak Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentzarauan aipatzen diren plangintza fiskaleko mekanismoei buruz informatzeko betebeharra legez eskatzen diren baldintzetan betetzeak ez du esan nahi, aplikatu behar den arabide juridikoaren arabera, urratu egingo direnik kontratu edo araudi bidez informazioa zabaltzeari buruz ezarritako murrizketak, eta betebeharreko subjektuek ez dute inolako erantzukizunik izango informazio horren titular den zergapeko interesdunari dagokionez.

4. Tributu-arloko arau-hausteak dira:

a) Xedapen gehigarri honetan jasotzen diren informazio-aitorpenak epearen barruan ez aurkeztea.

Arau-haustea astuna izango da, eta 2.000 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da zehapen gisa, aitorpenean jaso behar zen mekanismo bati buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, gutxieneko muga 4.000 euro direla eta gehieneko muga, berriz, mekanismo bakoitzeko jasotako edo jaso beharreko ordainsarien zenbatekoaren baliokidea –araua hautsi duena bitartekaria bada– edo mekanismo bakoitzetik eratorritako ondorio fiskalaren balioaren baliokidea, erregelamenduz ezarritako

moduan kalkulatua –arau hautsi duena zergapeko interesduna bada–. Gehieneko muga ez da aplikatuko, 4.000 eurotik beherakoa bada.

Aurrez esandakoa ezertan eragotzi gabe, mugaz gaindiko mekanismo batek baliorik ez duenean erregelamenduz ezarritakoaren arabera eta arau-hauslea zergapeko interesduna denean, gehieneko muga gisa zenbatuko da bitartekariak jasotako edo jaso beharreko ordainsarien zenbatekoaren baliokidea.

Ordainsaririk ezean, muga gisa hartuko da bitartekaritzat jotzeko aintzat hartu zen jardueraren merkatu-balioa, zeina kalkulatu baita Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 18.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Adierazitako gehieneko mugak aplikatzeko, arau-hausleak muga horiek egiaztatu beharko ditu, bai eta haien munta ere.

Paragrafo honetan jasotako zehapena eta gutxieneko eta gehieneko mugak erdira murriztuko dira, informazioa epez kanpo aurkezten bada Zerga Administrazioaren aurretzako errekerimendurik egon gabe.

Epe barruan aurkeztutako aitorpen bat osorik ez badago, zehaztugabea bada edo datu faltsuak baditu, eta, ondoren, epez kanpo eta aurretzako errekerimendurik egon gabe, aitorpen osagarri edo ordezkotako bat aurkezten bada, ez da egongo apartatu honen b) letran adierazitako arau-hausterik epe barruan aurkeztutako aitorpenari dagokionez; paragrafo hau aplikatuz dagokion zehapena epez kanpo aitortutakoari ezarriko zaio.

b) Xedapen gehigarri honetan jasotzen diren informazio-aitorpenak osorik ez egotea, zehaztugabeak izatea edo datu faltsuekin aurkeztea.

Arau-haustea astuna izango da, eta 2.000 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da zehapen gisa, aitorpenean jaso behar zen mekanismo bati buruzko datu edo datu-multzo aipatugabe, zehaztugabe edo faltsu bakoitzeko, gutxieneko muga 4.000 euro direla eta gehieneko muga, berriz, mekanismo bakoitzeko jasotako edo jaso beharreko ordainsarien zenbatekoaren baliokidea –arau hautsi duena bitartekaria bada– edo mekanismo bakoitzetik eratorritako ondorio fiskalaren balioaren baliokidea, erregelamenduz ezarritako moduan kalkulatu –arau hautsi duena zergapeko interesduna bada–. Gehieneko muga ez da aplikatuko, 4.000 eurotik beherakoa bada.

Aurrez esandakoa ezertan eragotzi gabe, mugaz gaindiko mekanismo batek baliorik ez duenean erregelamenduz ezarritakoaren arabera eta arau-hauslea zergapeko interesduna denean, gehieneko muga gisa zenbatuko da bitartekariak jasotako edo jaso beharreko ordainsarien zenbatekoaren baliokidea.

Ordainsaririk ezean, muga gisa hartuko da bitartekaritzat jotzeko aintzat hartu zen jardueraren merkatu-balioa, zeina kalkulatu baita Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 18.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Adierazitako gehieneko mugak aplikatzeko, arau-hausleak muga horiek egiaztatu beharko ditu, bai eta haien munta ere.

c) Xedapen gehigarri honetan jasotzen diren informazio-aitorpenak bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoekin aurkeztu behar direnean bestelako bitartekoekin aurkeztea.

Arau-haustea astuna izango da, eta 250 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da zehapen gisa, aitorpenean jaso behar zen mekanismo bati buruzko datu bakoitzeko edo datu-multzo bakoitzeko, gutxieneko muga 750 euro direla eta gehieneko muga, berriz, 1.500 euro.

d) Xedapen gehigarri honetan arautzen diren arau-haustea eta zehapenak ezin dira lege honen 198. eta 199. artikuluetan ezarritakoekin batera ezarri».

Bi. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita laugarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Partikularren arteko betebeharrak, eratorzen direnak plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruz informatzeko betebeharratik.*

1. Sekretu profesionalaren eginbeharra dela-eta plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoen aitortpena aurkeztetik salbuetsita dauden bitartekariak modu frogagarrian eman beharko diete salbuespenaren berri mekanismoetan parte hartzen duten gainerako bitartekariari eta zergapeko interesdunei, eta haien betebeharra izango da aitortpena aurkeztea, erregelamenduz ezarritako moduan.

2. Legez aitortpena aurkeztera behartuta dauden pertsonak edo entitateak aitortpena aurkezten dutenean, horren berri eman beharko diete modu frogagarrian eta erregelamenduz ezarritako moduan gainerako bitartekariari eta, hala badagokio, gainerako zergapeko interesdunei, zeinak, komunikazioa baliatuz, aitortpena aurkezteko betebeharratik salbuetsita geratuko baitira.

3. Tributu-arloko arau-hausteak dira:

a) Xedapen gehigarri honen 1. apartatuan jasota dagoen komunikazioa epearen barruan ez egitea edo komunikazioa egitea datu batzuk aipatu gabe edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak emanda.

Arau-haustea arina izango da, eta 600 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da zehapen gisa.

Arau-haustea astuna izango da, baldin eta, komunikazioa epearen barruan ez egiteaz gain, komunikazioa egin izan balitz aitortpena aurkeztu beharko zuen beste bitartekariak edo, hala badagokio, zergapeko interesdunak ez badu aurkezten lege honen hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuko a) letran jasota dagoen plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoari dagokion aitortpena. Halakoetan, aitortpena epearen barruan ez aurkeztearen ondoriozko arau-hausteari dagokion zehapena ezarriko da, zeina lege honen hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuko a) letran jasota baitago.

b) Xedapen gehigarri honen 2. apartatuan jasota dagoen komunikazioa epearen barruan ez egitea edo komunikazioa egitea datu batzuk aipatu gabe edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak emanda.

Artikulu honen arau-haustea arina izango da, eta 600 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da zehapen gisa».

Xedapen iragankor bakarra. *Lege hau indarrean jarri aurretik egin diren eta aitortu beharra dakarten mugaz gaindiko mekanismoei buruz informatzeko betebeharren araubide iragankorra.*

Mugaz gaindiko mekanismo baten lehen exekuzio-fasea 2018ko ekainaren 25etik 2020ko ekainaren 30era bitartean egin bada, erregelamenduz ezarritako moduan egin ere, mekanismo horiek aitortu egin beharko dira erregelamenduz ezarrita dauden epeen barruan.

Orobat, lege hau aplikatuko zaie komunikatu beharra dakarten mugaz gaindiko mekanismoei, baldin eta betebeharrak hori 2020ko uztailaren 1etik aurrera sortu bada, bat etorritik Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauarekin, zeina fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa baita eta 77/799/EEE Zuzentzarua indargabetzekoa.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko abenduaren 18ko 29/1987 Legea aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen den egunetik aurrerako ondorioekin, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko abenduaren 18ko 29/1987 Legearen 34.4 artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Aurreko apartatuak xedatutakoaren arabera, zergaren autolikidazio-araubidea ezartzen da, nahitaez, autonomia-erkidego hauetan:

- Andaluziako Autonomia Erkidegoa.
- Aragoiko Autonomia Erkidegoa.
- Asturiasko Printzerriko Autonomia Erkidegoa.
- Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa.
- Kanarietako Autonomia Erkidegoa.
- Kantabriako Autonomia Erkidegoa.
- Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa.
- Gaztela eta Leongo Erkidegoa.
- Kataluniako Autonomia Erkidegoa.
- Galiziako Autonomia Erkidegoa.
- Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoa.
- Madrilgo Erkidegoa.
- Valentziako Erkidegoa».

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.3 eta 149.1.14 artikuluetan ezarritakoaren babesean ematen da, artikuluko horiek eskumena ematen baitiote Estatuari nazioarteko harremanen eta ogasun publikoaren gainean, hurrenez hurren.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Europar Batasunaren Zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bidez, Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko (EB) 2018/822 Zuzentaraua txertatzen da Espainiako Zuzenbidean; zuzentarau horrek 2011/16/EB Zuzentaraua aldatu zuen, informazioa komunikatu beharreko mugaz gaindiko mekanismoak direla-eta fiskalitatearen eremuko informazioa automatikoki trukatzeko betebeharrari dagokionez.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2020ko abenduaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN